www.kobazkobatrail.com

# Kobaz koba trail 2018

ZESTOA



# Aurkibidea | Índice


Nor gara
Quíenes somos_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _4

Ibilbideen aurkezpenak
Presentación de los recorridos_ _ _ _ _8

Sariak
Premios_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _12

Festa kalean egitaraua
Programa de actividades en la calle_ _14

Araudia
Reglamento_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _18

Babesle eta laguntzaileak
Patrocinadores y colaboradores_ _ _ _ _25

Bolondres izan nahi al duzu?
¿Quieres ser voluntario?_ _ _ _ _ _ _ _26

Zerbitzuak
Servicios_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _28

2017ko KOBAZ KOBA TRAIL irabazleak
Ganadores de KOBAZ KOBA TRAIL 2017 _ _ 38

# NOR GARA
# QUIÉNES SOMOS

## ANTOLATZAILEAK

KOBAZ KOBA TRAIL Arazi (www.arazi.eus) eta Agiro Mendi Klubaren lankidetzaren fruitu da.

Agiro Mendi Kluba, Zestoako mendizaleek osaturiko talde bat da, herritarrengan mendizaletasuna sustatzeko eta afizio honetaz gozatzeko osaturiko elkartea. Arazi, kultura eta turismoaren kudeaketa arloko enpresa da, beste hainbat konturen artean Ekainberri kudeatzen duena.

Arazi eta Agiro Mendi Klubaren bideak elkar gurutzatzea naturala izan da: batak Ekainberriko ondarea ezagutzera ematea eta gizarteratzea du helburutzat; besteak berriz mendizaletasunaren bidez Zestoarrek beraien inguruak, paisaiak eta ondarea ezagutu eta babestea sustatzen du.

Modu honetan, eta lankidetza honen fruitu moduan, sortu zen KOBAZ KOBA TRAIL antolatzeko asmoa, mendizaletasuna eta ondarea batzen dituen kirol ekitaldia antolatzeko asmoa, bisitariek eta bertakoek gozatu zezaten Zestoataz, bere mendi eta ondare paregabeaz. Horixe da KOBAZ KOBA TRAIL-ak izan nahi duena, izpiritua eta nahia, balore eder hauek sustatzen dituen ekitaldi bat sortzea: kirola, bizitza osasuntsua, ondarearen gizarteratzea, geure historiaz modu osasungarrian gozatuz, elkarrekin kirola eginez eta elkarrekin eginez.

Hala ere, proba honek aurrera jotzeko ezinbestekoa izan da eta ezingo litzateke posible izan, herritarren, Udalaren eta babesleen laguntzarik gabe. KOBAZ KOBA TRAIL ideia bat besterik ez zenean iritzi baikorrak eta laguntza eskaini zigutenak dira, ideia eta ilusio hau errealitate bihurtzeko bidean, herritarren inplikazioa ezinbestekoa izan da, boluntarioen lanagatik izan ez balitz ez baitzen posible izango horrelako ekitaldi bat aurrera eramatea eta KOBAZ KOBA TRAIL ere beraiegatik da posible.

Zestoako Udala eta bertako kideak ere hasieratik egon dira probaren antolaketarekin lankidetzan eta lasterketa posible izatea erraztu dute. Udalerri txikia izanik ezinbestekoa da denok elkarrekin aurrera egitea orain arte bezala, eta hau da gure sekreturik preziatuena, elkarlana.

Azkenik lasterketa honetarako baliabideak lortzeko bidean babesleen laguntza ere ezinbestekoa izan da, beraiek lagundu bait dute beharrezkoak diren bitartekoak lortzeko finantziazioa eskainiz.

Eta azkenerako ezinbestekoak, zuentzako egiten baitugu hau guztia, bide zidorretan barrena gure mendiak zeharkatzen dituzuen kirolariok, eskerrik asko gure lana eskertzeagatik zuen izerdiarekin eta gurekin izateagatik.

Gora zuek! Zuek guztiok zarete KOBAZ KOBA TRAIL.

ORGANIZADORES

KOBAZ KOBA TRAIL es fruto de la colaboración de Arazi (www.arazi.eus) y Agiro Mendi Kluba.

Agiro Mendi Kluba, es un club de montañismo de Zestoa, una asociación que tiene como objetivo principal disfrutar de la montaña y promover esta afición en dicha localidad. Arazi es una empresa que trabaja en proyectos vinculados a la cultura y el turismo y que entre otras cuestiones se encarga de la gestión de Ekainberri.

El encuentro que se da en los caminos de Arazi y Agiro Mendi Kluba responde a la naturaleza de ambos: uno tiene como objetivo dar a conocer, acercar a la sociedad el patrimonio de Ekainberri; el otro tiene como objetivo que los zestoarras conozcan y protejan sus alrededores, tanto los paisajes como el patrimonio.

De este modo y como fruto de esta colaboración surgió la idea de KOBAZ KOBA TRAIL, la idea de crear un evento deportivo que aborde el montañismo y el patrimonio, para que visitantes y locales disfruten de Zestoa, de sus montes y patrimonio excepcionales. Eso es lo que KOBAZ KOBA TRAIL quiere ser, su espíritu, su quimera, es crear un evento que impulse estos bellos valores, deporte, vida saludable, socialización del patrimonio, gozando de nuestro patrimonio de manera saludable, practicando deporte juntos y trabajando unos con otros.

Aún así, para poder llevar a cabo esta prueba han sido necesarios, y no hubiera sido posible sin la ayuda de los voluntarios, el Ayuntamiento de Zestoa y los patrocinadores.

Cuando KOBAZ KOBA TRAIL no era más que una idea, mucha gente mostró opiniones positivas acerca del proyecto e incluso se ofreció a ayudar, y en el camino de convertir esta idea en una realidad la implicación de los zestoarras, el trabajo de loa voluntarios ha sido clave e imprescindible, pues sin ellos no sería posible organizar un evento como este.

El Ayuntamiento de Zestoa y sus integrantes también han estado implicados desde el primer momento, colaborando con la organización y facilitando la realización de la carrera. Siendo un pequeño municipio es importante que trabajemos todos juntos, y este es nuestro secreto más preciado, el trabajo en equipo.

Y cómo no, para conseguir los medios necesarios para llevar a cabo este evento ha sido crucial la aportación de los patrocinadores, pues ellos han ofrecido la financiación que ha hecho posible conseguir los medios necesarios.

Y ya para acabar, pues es para vosotros por lo que hacemos todo esto, para los corredores que montaña arriba montaña abajo surcáis nuestros montes, gracias por agradecer nuestro trabajo con vuestro sudor y por estar con nosotros.

Gora zuek! Todos vosotros sois KOBAZ KOBA TRAIL.

# IBILBIDEEN AURKEZPENAK
# PRESENTACIÓN DE LOS RECORRIDOS

## ARTZEI ETA ZALDEI BIDEAK

III. KOBAZ KOBA TRAIL bi probaz osatua dago: Artzei bidea (13km) eta Zaldei bidea (25km). Ibilbide osoak "8" baten forma hartzen du, Zestoako herria erdian geratzen delarik. Zestoako lurretan, azken izotz aroan, paleolitoaren amaieran, lehen gizakiak bizi izandako hainbat koba aurkitzen dira, non gizaki haien aztarna material ugari eta labar arte ikusgarria aurkitu diren. Lasterketaren ibilbidea berauetatik igarotzen da, kobaz-koba lehen gizakienak izan zitezkeen bideak jarraituaz.

Artzei bidea eta Zaldei bidea Ekain kobazuloan (Ekain koba, 2008an UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatua) aurkitzen diren eta izen berbera duten bi galerien omenez izendatu ditugu. Artzei, Izotz Aroan Zestoa inguruko leizeetan bizi ziren hartz haien omenez, eta Zaldei, zaldien erresistentzia eta edertasuna aintzat hartuaz.

## RECORRIDOS ARTZEI Y ZALDEI

III. KOBAZ KOBA TRAIL se compone de dos pruebas: Artzei bidea (13km) y Zaldei bidea (25km). El recorrido completo toma la forma de un "8" quedando el pueblo de Zestoa en el medio. Las tierras de Zestoa albergan varias cuevas que fueron habitadas en la edad del hielo, al final del paleolítico, donde aquellos primeros humanos nos dejaron numerosos restos materiales y impresionante arte rupestre. El recorrido de la prueba va de cueva en cueva siguiendo los senderos que bien pudieron ser recorridos por aquellos primeros humanos.

Hemos nombrado los recorridos Artzei bidea y Zaldei bidea en honor a dos galerías que se encuentran en la cueva de Ekain (declarada Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO en el año 2008). Artzei, que proviene de oso (hartza) en vasco, en referencia a aquellos animales que vivían en las cuevas de los alrededores de Zestoa, y Zaldei, proviene de caballo (zaldi) en vasco, en referencia a la belleza y resistencia de este animal.

## PROFILAK | PERFILES







ARTZEI bidea 13 km
25 km
ZESTOA
Ertxiña Tontorra
Danbolinzulo Koba
Marinelen Borda
Ertxinako meategiak
Arroa Goikoa auzoa
Arluze Megalitoa
Lili Jauregia
Ekainberri
Santa Engrazi


ZALDEI bidea 25 km
25 km
ZESTOA
Danbolinzulo Koba
Marinelen Borda
Ertxinako meategiak
Arroa Goikoa auzoa
Arluze Megalitoa
Ekainberri
Ekain Koba
Erlaitz Koba
Endoiako auzoa
Lasao
Agittako zerrategia
Ermitia Koba
Santa Engrazi

# SARIAK
# PREMIOS

Izen emandako guztiek opariak jasoko dituzte, izen ematearekin batera korrikalariaren poltsan barneratuta. Hortaz aparte lasterketa amaitzean sariak zozketatuko dira korrikalari guztien artean.

Proba bakoitzean lehen hiru sailkatuak ere sarituak izango dira:

> Lehen gizonezko eta emakumezko sailkatuak: txapela, kalitate labeldun euskal pdtu saskia, KOBAZ KOBA TRAIL 2019ko gonbitea.

> Bigarren gizonezko eta emakumezko sailkatuak: kalitate labeldun euskal pdtu saskia)+ KOBAZ KOBA TRAIL 2019ko gonbitea.

> Hirugarren gizonezko eta emakumezko sailkatuak: kalitate labeldun euskal pdtu saskia + KOBAZ KOBA TRAIL 2019ko gonbitea.

> Lehenengo zestoar gizonezko eta emakumezkoentzako sari berezia.

> Naturalki minimal runner saria (barefoota praktikatzen dutenentzat):

- Zaldei bidea (25km) lehen sailkatua gizonezko eta emakumezkoa: 200,00 euroko baliodun produktu lotea www.naturalki.com denda on linean.

- Artzei bidea (13km) lehen sailkatua gizonezko eta emakumezkoa: 100,00 euroko baliodun produktu lotea www.naturalki.com denda on linean.

Todos los inscritos recibirán obsequios que irán incluidos en la bolsa del corredor. Además de eso, al finalizar la prueba se sortearan premios entre todos los corredores.

Los primeros tres clasi cados de cada prueba serán también premiados:

> 1er clasificado masculino y femenino: txapela + cesta de productos vascos con label de calidad + inscripción kobaz koba trail 2019.

> 2º clasificado masculino y femenino: cesta de productos vascos con label de calidad+ inscripción kobaz koba trail 2019.

> 3er clasificado masculino y femenino: cesta de productos vascos con label de calidad + inscripción kobaz koba trail 2019.

> Premio especial para el/la primer/a zestoarra.

> Premio naturalki minimal runner (para los que practican el barefoot).

- 1er clasificado – masculino y femenino de Zaldei bidea (25km): lote por valor de 200,00 en la tienda online www.naturalki.com

- 1er clasificado – masculino y femenino de Artzei bidea (13km): lote por valor de 100,00 en la tienda online www.naturalki.com

# FESTA KALEAN EGITARAUA
# PROGRAMA DE ACTIVIDADES EN LA CALLE

**OTSAILAREN 18AN ZESTOAN**

**9:00tan** Zaldei bidea (25km) lasterketaren hasiera

**10:00tan** Artzei bidea (13km) lasterketaren hasiera

**10:00-etatik aurrera:** Trikitilariak eta festa giroa Laranjadi plazan. Probako babesle diren Euskolabel, Euskaber eta Naturalki-k beren produktuak eskainiko dituzte ere bertan.

**10:15ak aldera** lehen korrikalariak Zestoako kaleetara iristen hasiko dira. 13:00ak arte 500 korrikalariak pasako dira.

**12:30** Sari banaketa. Lehenik Artzei bidea (13km) eta ostean Zaldei bidea (25km).

**13:00ak aldera**, denbora maximoak beteko dira eta azken korrikalarien iritsiera.

Ikusleentzat egitaraua pasatze-denborarekin:

Pasatze-denborak 25km:

| NON | PUNTU KILOMETRIKOA | NOIZ |
|---|---|---|
| 1.Irteera | 0 | 9:00 |
| 2.Aizarna | 3.2km | 9:10 - 9:30 |
| 3.Santa Engrazia | 6.km | 9:20 – 10:00 |
| 4.Laranjadi plaza (Zestoa) | 16km | 10:15-11:45 |
| 5.Azkeneko mendia | 18.5km | 10:30-12:15 |
| 6. Helmuga | 25km | 11:00-13:00 |

Pasatze-denborak 13km:

| NON | PUNTU KILOMETRIKOA | NOIZ |
|---|---|---|
| 1. Irteera | 0 | 10:00 |
| 2. Aizarna | 3,5km | 10:15-10:45 |
| 3. San Pelaio Gaina | 6,4km | 10:35-11:30 |
| 4. Auzo Gaina | 10km | 10:45-12:00 |
| 5. Ertxinako Gurutzea | 11,5km | 10:50-12:20 |
| 6. Zestoa | 13,7km | 11:55-13:00 |

Lasterketaz gozatu nahi duten bisitariei, lasterketaren puntu hauek gomendatzen dizkiegu:

**Aizarna:** Askorentzako herriska ezezaguna enkantuz betea. Korrikalariak azkar pasako dira terreno laua delarik.

**18 DE FEBRERO EN ZESTOA**

**9:00** Comienzo de la prueba Zaldei bidea (25km).

**10:00** Comienzo de la prueba Artzei bidea (13km).

**10:00 –en adelante:** Trikitilaris y ambiente festivo en Plaza Laranjadi. Los patrocinadores de la prueba (Euskolabel, Euskaber y Naturalki) ofrecerán y mostrarán sus productos.

**10:15** Comenzarán a llegar a las calles de Zestoa los primeros corredores. Hasta la 13:00 pasarán los 500 participantes.

**12:30 Reparto de premios:** Primero Artzei bidea (13km) y después Zaldei bidea (25km).

**13:00** Se completarán los tiempos máximos y llegada de los últimos corredores.

Programa para los espectadores con los tiempos de paso:

Tiempos de paso 25km:

| NON | PUNTU KILOMETRIKOA | NOIZ |
|---|---|---|
| 1.Irteera | 0 | 9:00 |
| 2.Aizarna | 3.2km | 9:10 - 9:30 |
| 3.Santa Engrazia | 6.km | 9:20 – 10:00 |
| 4.Laranjadi plaza (Zestoa) | 16km | 10:15-11:45 |
| 5.Azkeneko mendia | 18.5km | 10:30-12:15 |
| 6. Helmuga | 25km | 11:00-13:00 |

Tiempos de paso 13km:

| NON | PUNTU KILOMETRIKOA | NOIZ |
|---|---|---|
| 1. Irteera | 0 | 10:00 |
| 2. Aizarna | 3,5km | 10:15-10:45 |
| 3. San Pelaio Gaina | 6,4km | 10:35-11:30 |
| 4. Auzo Gaina | 10km | 10:45-12:00 |
| 5. Ertxinako Gurutzea | 11,5km | 10:50-12:20 |
| 6. Zestoa | 13,7km | 11:55-13:00 |

A aquellos espectadores que quieran disfrutar de la carrera les recomendamos los siguientes lugares:

**Aizarna:** Una villa desconocida para muchos, llena de encanto. Es un terreno llano por lo que los participantes pasarán rápido.

# ARAUDIA
# REGLAMENTO

1- DATA ETA LEKUA
KOBAZ KOBA TRAIL, 2018ko otsailaren 18an. Zaldei bidea (25km) goizeko 09:00etan hasiko da eta Artzei bidea (13km) 10:00etan. Irteera eta amaiera puntuak Zestoako Foruen Plazan izango da.

2- IBILBIDEA ETA DENBORA MAXIMOAK
Zestoako inguruko mendialdea zeharkatzen da, 25km-ko eta 13km-ko bi ibilbide dituelarik. 1850m-ko desnibel metatua du 25km-ko lasterketak eta 750m-koa 13km-tako lasterketak.
Denbora maximoak:

- Zaldei bidea: 4 ordu (Zestoako herrigunean 13km-an 2h 50min mozketa egingo da)
- Artzei bidea: 3 ordu

3- GUTXIENEKO ADINA
18 urtetik gorako atletek parte har dezakete soilik.

4- IZEN-EMATEA
- Izen-ematea: 25,00 €, 25km-tako lasterketarako eta 15,00 €, 13km-tako lasterketarako.
- Izena emateko epea: 2018ko abenduaren 15etik otsailaren 9ra arte (barne): soilik internetez egin daiteke www.kirolprobak.com webgunean.

5- SEGURTASUNA
Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu. Gurutze Gorriko laguntza izango dugu. Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

6- SEINALEZTAPENA
Ibilbidea eta kilometroak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartel adierazleekin.
Laranja kolorez seinaleztatuko da

7- HORNIDURA
Helmugakoaz gain, 4 hornidura puntu atonduko dira. Postu hauetan freskagarriak eta produktu energetikoak eskainiko zaizkie partehartazaileei.

8- SAILKAPENA
EMF-FVMen araudiaren arabera egingo da kronometraia. Sailkapena argitaratu ondoren, 30 minutu egongo dira edozein erreklamazio egiteko. Denbora pasa eta gero, ofizialak egingo dira sailkapenak.

9- BAREFOOT KATEGORIA
Naturalki Minimal Runner: Emakumezko eta gizonezkoen kategoriaz gain, Naturalki Minimal Runner kategoria dugu Naturalki-k eskainia. Izena ematen duzuen unean aukera hau ere izango duzue. Kategoria honetan parte hartzeko oinutsik edota oinetako minimalistekin joan beharra dago, desnibelik Gabe orpoa eta aurrekaldearen artean (0 drop) eta gehienez 12mm-ko lodiera denera (%10eko marjina)
Kategoria honetan parte hartu nahi duten korrikalariek Naturalkiren stand-etik dortsala jasotzerako unean pasa beharko dute probaren aurretik.

10- DORTSALEN BANAKETA
Dortsalak txiparekin eta lasterkariaren poltsa Zestoako Kiroldegian banatuko dira lasterketa egunean eta Zestoako turismo bulegoan jaso ahal izango dira aurreko bi egunetan.
Otsailak 16 eta 17 Zestoako turismo bulegoan: 9:30-13:30 eta 15:00-17:30
Lasterketa egunean kiroldegian (otsailak 18): 8:00 - 9:00 25km Zaldei ibilbidea
9:00 - 10:00 13km Artzei ibilbidea

11- INGURUGIROA
Kobaz koba lasterketak duen xedeetako bat jasangarritasuna eta ingurunearekin errespetua izatea da.
Lasterketa Pagoetako Parke naturaletik eta Izarraitz Kontserbazio bereziko eremutik pasako da.
Baita ere hainbat terreno pribatutik ere. Horregatik kontuan izan behar dute lasterketako partaide guztiak, hau da, antolakuntza, boluntario, publiko eta korrikalariak errespetu handiz jorratu behar dutela ingurugiroarekin.
Antolakuntzaren aldetik, natura errespetatzeaz aparte konpromiso hauek hartzen ditu:

- Material birziklatuak eta biodegradarriak erabiltzea.
- Lasterketa pasatzen den lekua lehen zegoen bezala uztea, hau da, balizak erretiratu eta probak sorturiko zabor guztia jasotzea.

Penalizazioak/descalifikazioak

- Seinaleztatzea ibilbidea edo ibilbidearen zati bat spray, pintura edo beste material ezabaezin batekin.
- Zaborra botatzea ibilbidean zehar.
- Zaborrak uztea anoa postuetan dauden zaborrontzietatik kanpo.

-Ezarritako ibilbidetik irtetea. Ibilbidea laburtzea edo bidezidorrak hartzea.
-Igarotzea aurrez informatutako eta seinaleztatutako landareentzako eta faunarentzako inguru ahulak.
-Uko egitea parte hartzailea identifikatzeko beharrezkoak diren elementuei (dortsala, identifikazio kodea)

12- ZAINDEGIA ETA DUTXAK
Aurten salbuespen bezala dutxak Iraetako futbol zelaian izango dira Zestoako Kiroldegia izan beharrean, obrak egiten ari direlako bertan. Futbol zelaia Zestoatik 2 km-tara dago, beraz autobus bat jarriko dugu joan etorriak egiten. Autobusa 15 minuturo izango da Gurutzeko geltokitik, Iraetako futbol zelaira. Horrela korrikalariak dutxatu ondoren Zestoara bueltatzeko aukera izango dute bertako festagiroaz, pintxoez eta musikaz gozatzeko. Hurrengo urtean instalazioak berriz kiroldegian izango dira.

13- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA
Antolakuntzak, proba ordezko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

14- LAGUNTZA EZBEHARRETAN
Partehartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

15- ERANTZUKIZUNA
Antolakuntzak bere gain hartuko du ibilbidearen barruan gertatzen den edozein istripuen ardura, baina ez korrikalarien istripuaz zabarkeriak eraginda gertatzen bada. Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango, helburu horrekin zaindegi-zerbitzu bat izango baita kiroldegian bertan. Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonei eragindako kalte ororen erantzukizuna.

16- PARTAIDEN KOPURUA Gehienezko kopurua: 500.

17- ARAUDIAREN ONARPENA
Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

ARGIBIDEAK: 943 833 641 – info@kobazkobatrail.com



1- FECHA Y LUGAR
KOBAZ KOBA TRAIL, el 18 de febrero del 2018. Zaldei bidea (25km) dará comienzo a las 9:00 de la mañana y Artzei bidea (13km) a las 10:00. La salida y la llegada estarán en la Plaza de los Fueros de Zestoa.

2- RECORRIDO Y TIEMPOS MÁXIMOS
Recorrerán los montes de alrededor de Zestoa en dos recorridos, uno de 25km y otro de 13km. La prueba de 25km tiene un desnivel acumulado de 1850m y la de 13km, de 750m.
Tiempos máximos:

- Zaldei bidea (25km): 4 horas (corte en el centro de Zestoa, 13km, 2h 50min)
- Artzei bidea (13km): 3 horas

3-EDAD MÍNIMA
Solo podrán tomar parte atletas mayores de 18 años.

4- INSCRIPCIONES
- Inscripciones: 25,00€ para la prueba de 25km y 15,00€ para la de 13km.
- Plazo de inscripción: desde el 15-12-2017 hasta el 9-02-2018. Las inscripciones se realizarán únicamente por internet en la página www.kirolprobak.com

5- SEGURIDAD
La organización dispondrá de seguros de Responsabilidad Civil y de Accidente. Tendremos la ayuda de la Cruz Roja. La organización recomienda a todos los participantes a que se hagan un chequeo médico previo. Cada uno tendrá que asumir los riesgos que conlleva la práctica de este deporte.

6- SEÑALIZACIÓN
El recorrido y los kilómetros estarán debidamente señalizados. Se señalizará en color naranja.

7- AVITUALLAMIENTOS
Aparte de en la llegada, se montarán otros 4 avituallamientos en total. En estos puestos los corredores dispondrán de bebidas y productos energéticos.

8- CLASIFIFACIÓN
El cronometraje se hará en cuanto al reglamento de EMF-FVM. Una vez que se dé a conocer la clasificación, se dispondrá de 30 min para hacer cualquier reclamación. Una vez pasado este tiempo la clasificación se hará oficial.

9- CATEGORÍA BAREFOOT
Naturalki Minimal Runner: Aparte de las categorías femenina y masculina, tenemos también la categoría Naturalki Minimal Runner, ofrecida por Naturalki. Al hacer la inscripción tendréis esta opción. Para participar en esta categoría tus pies deben ir descalzos o provistos de calzado "minimalista", carente de desnivel entre el talón y la parte delantera (cero drop) y un máximo de grosor de 12 milímetros en total (margen de error 10%).
Los corredores que quieran participar en esta categoría tendrán que pasar por el stand de Naturalki al recoger el dorsal antes de la prueba.

10- REPARTO DE DORSALES
Los dorsales con el chip y la bolsa del corredor se repartirán en el Polideportivo de Zestoa el día de la prueba y se podrán recoger en la Oficina de Turismo de Zestoa los dos días previos.
16 y 17 de febrero en la Oficina de Turismo de Zestoa: 9:30 - 13:30 y 15:00 - 17:30
El 18 de febrero en el Polideportivo de Zestoa: 8:00 - 9:00 25km Zaldei ibilbidea
9:00 - 10:00 13km Artzei ibilbidea

11- MEDIOAMBIENTE
Uno de los valores principales sobre los que se sustenta Kobaz Koba Trail es la sostenibilidad y el respeto al Medio Ambiente.
La carrera pasará por montañas, como el Parque Natural de Pagoeta o el Macizo de Izarraitz y también por terrenos privados. Esto requiere un especial cuidado y respeto por parte de todas las partes implicadas en la carrera: organización, voluntarios, público y participantes.
En lo que respecta a la organización, además de velar y hacer velar por que el impacto de las carreras en el medio natural sea el mínimo posible, se compromete a:

- Respeta el medio ambiente. Evita el deterioro de los recursos naturales, geológicos y culturales presentes en el camino
- Utilizar materiales reciclados, reutilizables o biodegradables.
- Retirar todas las balizas y marcas indicativas de los recorridos y, en cualquier caso, a eliminar todo tipo de residuo que haya podido producirse por las pruebas.
- Sigue el recorrido diseñado y señalizado por la organización, y no salgas de él. Evita los itinerarios secundarios que pueda tener el recorrido principal. No utilices atajos que crucen el campo. Evitar acortar el recorrido por la parte interna de las curvas.

Penalizaciones/descalificaciones

- Verter basura a lo largo del recorrido.
- Depositar basura fuera de los cubos colocados en los puestos de avituallamiento.
- Salirse fuera del recorrido. Acortar el recorrido o tomar atajos.

- Transitar por zonas que previamente hayan sido identificadas y señalizadas como zonas vulnerables con respecto a la flora y fauna.
- Señalizar el recorrido o una parte de él con spray, pintura u otro material.
- Negarse a utilizar los elementos necesarios para la identificación del participante (dorsal, código de identificación).

12- DUCHAS Y SERVICIO DE CONSIGNA
Este año de modo excepcional y debido a las obras que se están realizando en el Polideportivo de Zestoa, el servicio de duchas se va a ubicar en el campo de futbol de Iraeta, que se encuentra a 2 km del centro de Zestoa. Para ello vamos a fletar un autobús que estará yendo y viniendo cada 15 minutos desde la parada de la Cruz hasta el campo de futbol de Iraeta para que los corredores puedan ir ducharse y volver al centro de Zestoa y puedan disfrutar del ambiente de la carrera, pintxos y música. Para el año que viene las instalaciones serán mucho más adecuadas a vuestras necesidades.

13- SEGURIDAD DEL RECORRIDO
Por motivos de seguridad, si las condiciones atmosféricas u otro condicionante así lo exigiera, la organización tendrá todo el derecho para desviar la prueba por otro recorrido, hacer cualquier cambio o incluso cancelar la prueba.

14- AYUDA EN CASO DE ACCIDENTE
Los participantes tendrán la obligación de ayudar a cualquier accidentado y de dar parte de cualquier incidencia en los puntos de control.

15- RESPONSABILIDAD EN CASO DE ACCIDENTE
La organización se hará responsable de cualquier accidente que suceda en el recorrido de la prueba, pero no si dicho accidente ha sido provocado por una imprudencia del corredor. Tampoco se hará responsable de los objetos personales de los participantes, para ello se facilitará un servicio de consigna en el polideportivo de Zestoa. Los participantes serán responsables de los daños producidos a sí mismos y a terceras personas.

16- NÚMERO DE PARTICIPANTES
Máximo: 500 personas.

17- ACEPTACIÓN DEL REGLAMENTO
Todos los participantes aceptan este reglamento. Lo que no aparece en este documento se hará tomando en cuenta el reglamento de EMF-FVM.

CUALQUIER DUDA: 943 833 641 – info@kobazkobatrail.com

## BABESLE ETA LAGUNTZAILEAK
## PATROCINADORES Y COLABORADORES

III.KOBAZ KOBA TRAIL-eko babesleak eta laguntzaileak, aurtengoan ere proba paregabe bat ospatzen lagunduko digute. Beraien kompromezuak KOBAZ KOBA TRAIL aurrera ateratzen laguntzen gaitu. Esker mila guztioi!

Los patrocinadores y colaboradores de III.KOBAZ KOBA TRAIL nos ayudarán a volver a organizar por segunda vez este evento sin igual. Su compromiso hace posible sacar adelante KOBAZ KOBA TRAIL. ¡Mil gracias a todos!



# BOLONDRES IZAN NAHI DUZU?
# ¿QUIERES SER VOLUNTARIO?

Bolondres izan nahi? Zestoan antolatzen den ekitaldi eder honen parte izan nahi duzu? Mendizaletasuna eta geure historiari bultzada bat emateko prest?

Bolondresen lanagatik izango ez balitz ez zen posible izango KOBAZ KOBA TRAIL bezalako ekitaldi bat aurrera eramatea. Egiteko lan txiki asko daudelako, eta lan txiki horiek batuaz, denon artean ekitaldi handia egiten dugulako, horregatik behar zaitugu! Anima zaitez parte hartzera!

Lan desberdin ugari daude egiteko, eta zure gustuen arabera batean edo bestean egon zaitezke: bide gurutzetan laguntzen, anoak prestatzen, dortsalak banatzen, speaker lanak egiten… Horrela denon artean bakoitzak pixka bat ipinita, lasterketa polit bat egin dezakegu.

Boluntario izatea erraza da, egin behar duzun bakarra honakoa da, idatzi helbide honetara, info@kobazkobatrail.com eta eman itzazu zure datuak (izen-abizenak, NAN-a eta jaiotze data) eta adierazi iezaguzu zertan lagundu nahi zenukeen. Datuak erraztea beharrezkoa da aseguratuak egon zaitezten. Bolondres izateko beharrezkoa da 16 urtetik gorakoa izatea eta 18tik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

Baina ez da dena lana izango! Laguntzen duenak, esperientzia ederraz gozatzeaz gain saritxoa ere badu ongi merezia! Horregatik bolondres bakoitzak honakoa jasoko du: probaren ikurra eta oroigarria izango den oparia, proba egunean herriko plazan antolatuko den ferian pintxo eta sagardo freskoaz gozatzeko tiketa.

Gogoratu bolondres izateak ardura eta konpromisoa eskatzen duela, oso garrantzitsua da inplikatzen den orok bere egitekoa betetzea, eta ezin ahal izanez gero ahal bezain pronto abisatzea.

Aldez aurretik eskerrik asko guztioi eta zeuen parte hartzea espero dugu! Animatu egun paregabe bat pasatzera!

¿Quieres ser voluntario? ¿Quieres ser parte de esta excepcional prueba que se organiza en Zestoa? ¿Estás dispuesto a darle un impulso a la afición a la montaña y a nuestra historia?

Si no fuera por el trabajo de los voluntarios no sería posible sacar adelante una prueba como KOBAZ KOBA TRAIL. Porque hay muchas pequeñas tareas que completar, y porque sumando esas pequeñas tareas, entre todos hacemos posible este gran evento, ¡por eso te necesitamos! ¡Anímate a colaborar!

Hay infinidad de tareas para llevar a cabo, y según tus gustos puedes ocupar un puesto u otro: ayudar en cruces de caminos, preparar avituallamientos, repartir dorsales, hacer de speaker... De este modo, aportando cada uno nuestro granito de arena, podemos organizar una bonita prueba.

Es fácil hacerse voluntario, lo que tienes que hacer es lo siguiente, escribe a esta dirección, info@kobazkobatrail.com, facilítanos tus datos (nombre y apellidos, DNI y fecha de nacimiento) y coméntanos en qué es lo que te gustaría ayudar. Es necesario que nos faciliteis vuestros datos para que así estéis asegurados. Para ser voluntario es necesario ser mayor de 16 años y los menores de 18 necesitarán la autorización de sus padres.

¡Pero no todo es trabajar! Todo aquel que ayude, aparte de compartir una rica experiencia, también ¡tendrá un pequeño premio bien merecido! Cada voluntario recibirá lo siguiente: la camiseta oficial de la carrera, un tiket para disfrutar de un pintxo y una sidra en la feria que se organizará en la plaza del pueblo.

Recordad que ser voluntario implica responsabilidad y compromiso, es muy importante que todo aquel que se implique cumpla con su función, y de no poder hacerlo, que avise lo antes posible.

Muchísimas gracias de antemano a todos los voluntarios, y ¡esperamos veros este año de nuevo! ¡Animaros a pasar un día excepcional!

# ZERBITZUAK
# SERVICIOS

## MUSEOAK | MUSEOS

**EKAINBERRI**
Ekainberrik gure arbasorik urrunenen artelanatara hurbiltzeko aukera ematen digu. Ekaingo kobazuloaren erreplikan duela 14.500-10.000 urteko gizakiek buruturiko margoen kopia zehatzak ikusi ahal izango ditugu, baina litekeena da bisitaria pertsona haien bizimoduan sakontzeko irrikarekin gelditzea. Arkeologia esperimentalak geure eskuekin Historiaurreko teknika desberdinak eraikitzeko eta Paleolitoan bizirik irauteak zituen zailtasunak ezagutzeko aukera ematen digu. “Ekain abenturarekin”, horretarako egokituriko ehiza zirkuitu batean animalia desberdinak ehizatu ahal izango ditugu, hori guztia Sastarrain errekaren ibilbideak markaturiko inguru natural zoragarri batean lan eginez. Ibilbideak inguruko landaredia eta faunara hurbiltzeko aukera ere emango digu. Baina dena ez da ehizarekin amaituko, margotzen eta sua egiten ikasiko da, jainkoei ehiza oparoa eskatu behar baitzaie eta harrapakina sukaldatzeko sua prestatu.

**Salneurriak:**
- Sarrera orokorra: 6,00 € + 2,00 € Ekain abentura (hautazkoa).
- Murriztua: 5,00 €

**Erreserbak:** 943 868 811



Ekainberri nos permite acercarnos a las obras de arte realizadas por nuestros antepasados más remotos. En la réplica de la cueva de Ekain podremos visitar copias exactas de las pinturas realizadas por las personas de hace 14.500-10.000 años, pero puede que el visitante se quede con las ganas de profundizar en la forma de vida de aquellas personas. La arqueología experimental nos da la opción de reconstruir con nuestras propias manos las diferentes técnicas prehistóricas y nos permite comprobar la dificultad que suponía sobrevivir durante el Paleolítico. Con la “Aventura Ekain”, podremos cazar diferentes animales en el circuito de caza adaptado para tal fin, todo ello trabajando en un maravilloso entorno natural marcado por el curso de la regata de Sastarrain. El recorrido también nos permitirá acercarnos a la flora y la fauna de la zona. Pero con cazar no terminará todo, se aprenderá a pintar y a hacer fuego, pues hay que propiciar la caza por parte de los dioses y hay que preparar el fuego para cocinar la presa.

**Precios:**
- Entrada general: 6,00 € + 2,00 € Aventura Ekain (opcional)
- Reducida: 5 ,00 €

**Reservas:** 943 868 811



**LILI JAUREGIA**

*LILITARREN OHOREA*

Gure Jaunaren 1678. urtea da. Egunak dira Lili Jauregiak bere leiho-ateak erdi itxita dituela eta leihoetatik argirik ateratzen ez dela. Andre Madalen aspaldi ez dela herrira hurbildu. Zerbait ari da gertatzen jauregian. Lehen argitasuna eta alaitasuna jauna zen lekuan, orain desohorearen, lotsaren eta tristuraren laino beltzak dira nagusi. Andre Madalenen bizitza guztiz aldatuko duen gertaera batek etxeko eta burdinoletako erritmo bizia guztiz puskatu du.
Euskal emakume honek, bere barruan gordeta dituen indarra eta adorea ateratzeko momentua iritsi da.

**Salneurriak:**
- Sarrera orokorra: 5,00 €
- Murriztua: 4,00 €

**Erreserbak:** 943 868 811



**EL PALACIO LILI**

*EL HONOR DE LILI*

Es el año 1678 de nuestro Señor. Hace días que las contraventanas del Palacio Lili permanecen medio cerradas y ya no sale luz de su interior. Andre Madalen ya no baja al pueblo. Algo ocurre en el palacio. El lugar en el que antes reinaban la luz y la alegría, ahora se encuentra cubierto por las negras nubes del deshonor, la vergüenza y la tristeza. Un acontecimiento que hará cambiar totalmente la vida de Andre Madalen ha roto con el ritmo vivo de la casa y de las ferrerías. Ha llegado el momento de que esta mujer vasca tenga que sacar la fuerza y el valor que guarda en su interior.

**Precios:**
Entrada general: 5,00 €
Reducida: 4,00 €

**Erreserbak:** 943 868 811



| IZENA ETA HELBIDEA / *NOMBRE Y DIRECCIÓN* | KONTAKTUA / *CONTACTO* | ESKAINTZA / *QUE OFRECE* |
|---|---|---|
| Aranburu Nekazalturismoa Urrutikoetxea kalea, 2 (Zestoa, Aizarna auzoa) | txondei@hotmail.com<br>943 148 005<br>http://www.nekatur.net/aranburu | Nekazalturismoa taberna, jatetxe eta guzti. Lasterketaren babeslea da.<br>*Agroturismo con bar y restaurante. Es patrocinador de la prueba.* |
| Kortazar Nekazalturismoa Urdanetabidea, 2 (Zestoa, Txiriboga auzoa) | info@kortazar.com<br>606970265 943860000<br>http://www.nekatur.net/kortazar | Apartamentuak<br>*Apartamentos* |
| Tolare Berri Nekazalturismoa Arbebidea, 7 (Zestoa, Arroagoia auzoa) | tolareberri@gmail.com<br>943 148 263 649 518 971<br>http://www.nekatur.net/tolare | Logelak eta sukaldea erabiltzeko aukera. Gosariak eskaintzen dituzte<br>*Dormitorios con derecho a cocina. Opción a desayuno* |
| Sastarrain Ekainbidea, 6 (Zestoa) | sastarrain@jet.es<br>943148239<br>http://www.sastarrain.com/ | Logelak eta pentsio osoa<br>*Alojamiento y pensión completa* |
| Azketa Errota Nekazalturismoa Arroaerrekako bidea, 16 (Zestoa, Arroaerreka auzoa) | azketaerrota@hotmail.es<br>658 745 118<br>http://www.nekatur.net/azketaerrota | Etxe osoa alokatzen dute, 10pertsonentzat gehienez<br>*Se alquila el edificio entero con capacidad para 10personas* |



KOBAZ KOBA TRAIL-etik parte hartzaile, familia nahiz lagunei Zestoa eta bere inguruak ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Lasterketaren aitzakiarekin asteburu paregabe bat pasa, eta agian, uste zenutena baino gehiago topatuko duzue herriska honetan.

Zer du bada Zestoak? Hona hemen gida txiki bat:

**Non lo egin?**
Lista honetan dauden alojamentu denek, probaren astebuan irteera arratsaldera arte luzatzea onartu dute, lasterketa amaitzean lasai dutxatzera joateko, eta gosaria eskaintzen dutenek lasterketarako gosari ordua moldatuko dute nahiz gero.

**Zer egin?**
Larunbata egun ona izan daiteke Zestoa eta bere inguruak ezagutzeko. Ekain kobaren (labar artea duen koba, UNESCO-k 2008an Gizateriaren Ondare deklaratua) erreplika paregabea bisita dezakezue Ekainberrin eta animatuz gero, paleolitoan bezela sua margoa eta ehiza egiten ikasi. Erdi aroko istorioak atsegin badituzue Andre Madalenek bere bizitzaren pasarte bat antzezten du XVI.mendeko Lili Jauregian. Eta ezer berezirik egin nahi ez baduzue, zestoako herriak baditu bere plaza, kale, taberna, jantoki eta oinez ibiltzeko inguru ederrak. Hau guztia eta gehiago Zestoara urbildu eta gustu haundiz azalduko dizuete turismo bulegoan.

Zestoako Turismo Bulegoa: Portale Kalea, 1. Tel: 943 868 811

Desde KOBAZ KOBA TRAIL, os invitamos a participantes, familia y amigos a que conozcáis Zestoa y sus alrededores. Con la excusa de la carrera, podéis aprovechar para pasar un fin de semana inolvidable y tal vez encontréis más de lo que pensabais.

¿Que hay pues en Zestoa? Aquí una pequeña guía:

**¿Dónde alojarse?**
Los alojamientos que se encuentran en esta lista, han accedido a retrasar la salida hasta la tarde del domingo, para poder ir a ducharse y demás después de la carrera, y aquellos que ofrecen desayuno están dispuestos a adecuarse a los horarios de los corredores.

**¿Qué hacer?**
Podéis aprovechar el sábado para conocer Zestoa y sus alrededores. En Ekainberri podéis visitar la maravillosa réplica de la cueva de Ekain (cueva que contiene arte rupestre del paleolítico, declarada Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO en 2008) y si os animáis incluso podéis aprender a hacer fuego, cazar y pintar como en el paleolítico. Si os gustan las historias de la Edad Media, Andre Madalen os hará una visita teatralizada en un edificio del s.XVI, el Palacio Lili. Si no queréis hacer nada en especial, el pueblo de Zestoa tiene hermosas calles, plazas, bares y restaurantes y unos alrededores impresionantes para practicar senderismo. Todo esto y más, os lo explicarán con mucho gusto en la oficina de turismo que se encuentra en el centro del pueblo.

Zestoako Turismo Bulegoa: Portale Kalea, 1. Tel: 943 868 811

**SASTARRAIN BASERRI ESKOLA**

Se encuentra dentro del recorrido de KOBAZ KOBA Trail, nos trae una oferta única para los días 17-18 de febrero, un fin de semana inmerso en la naturaleza y la prehistoria. Mientras participas o disfrutas del KOBAZ-KOBA Trail, nosotros nos ocupamos de los niños, realizando actividades.

Sastarrain Ekintzak/Actividades Kobaz Koba Trail-eko ibilbidean aurkitzen da, eta eskaintza paregabe bat dakar otsailak 17-18-rako, asteburu bat naturan eta prehistorian murgiltzeko aukera ematen dizu. KOBAZ KOBA Trail-ean parte hartzen edo gozatzen ari zaren bitartean, gu arduratzen gara umeetaz, jarduera ezberdinak eginez.



C/ Ekainbidea, 6, 20740 Zestoa, Gipuzkoa, Guipúzcoa
Sastarrain Baserri Eskola
Tel. 943 14 81 15
sastarrain@sastarrain.com
www.sastarrain.com

Eraikina hiru solairutan banatuta dago:
Beheko solairuan, harrera, jangela zabala -neguan tximinia pizteko aukera ematen duena-, sukalde modernoa, komunak... daude. Kanpoaldean, berriz, ogia egiteko labe tradizional bat.
Bigarren solairuan, erabilera anitzeko bi gela zabal daude. Bertan egiten dira tailerrak eta taldeei zuzendutako beste hainbat jarduera. Solairu honetan daude, baita ere, estalita dagoen atarira eta bigarren terraza batera ematen duten sarbideak.
Hirugarren solairuan, logelak (ohatzeak dituzten hiru gela handi) eta dutxaz hornitutako komunak daude. Hirugarren solairu honetako leihoetatik, bista ederrak daude: ingurune berdeaz gozatzeko parada izango du, hortaz, bisitariak.

El edificio se divide en tres plantas:
En la planta baja se encuentran la recepción, el amplio comedor con su chimenea para disfrutar en invierno, la moderna cocina, servicios… Al exterior, un horno tradicional para hacer pan.
La segunda planta acoge donde dos amplias salas polivalentes se desarrollan diferentes talleres y otras actividades para grupos. Desde aquí se accede a un porche techado y a una segunda terraza que comunican con el exterior.
La tercera planta acoge las habitaciones (tres amplias salas con literas) y los baños equipados con duchas. Desde las ventanas de esta tercera altura se tienen las mejores vistas del verde entorno.

## BESTEAK | OTROS

**Kontsignak | Consignas**
Parte-hartzaile guztiek beraien gauzak utzi ditzazkete kiroldegian antolatuko den kontsigna zerbitzuan.

Todos/as los/as participantes podrán dejar sus pertenencias en el servicio de consigna que habrá en el polideportivo.

**Dutxak | Duchas**
Iraetako futbol zelaian.

En el campo de fútbol de Iraeta.

**Aparkalekua | Aparcamiento**
Lasterketaren egunean Zestoan bertan seinalizatuta egongo den aparkalekuan autoak uztea gomendatzen dizuegu.

Recomendamos dejar los coches en el aparcamiento que se encontrará señalizado en Zestoa el día de la carrera.

# 2017KO KOBAZ KOBA TRAIL IRABAZLEAK
# GANADORES DE KOBAZ KOBA TRAIL 2017

## 25km



1- Alicia Olazabal Donato de Lopez

2- Laida Elizegi Armendariz

3- Mayi Mugica Errasti

## 17km



1- Oihana Azkorbeitia Urizar

2- Raffaella Ciavola

3- Jone Zelaieta Lazkano

## 25km



1- Julen Martinez de Estibariz Perez de Villareal

2- Imanol Larrañaga Larrañaga

3- Mikel Dieguez Bergara

## 17km



1- Gorka Herce Arbelaitz

2- Asier Apeztetxea Iparragirre

3- Javier Perez Moreno

## Antolatzaileak

arazi ideiak borobiltzen

Zestoako Agiro Mendi Kluba

## Babesleak

Zestoako Udala

Ekain berri

Bilbotex. servicios textiles integrales

Urdetxe

Km0 baserria

Ekain

Eusko Label

Lili Jauregia

nik tri

El Diario Vasco

euskaber

eskua / NaturalKi
TERAPIA ZENTROA-BELARDENDA

Txukun Lorazantza, S.L.

Irizar

Ametza

Powerade bebida para deportistas

urolagustagarri

Kaiku

Aneto 100% natural

Artiach

ederto

## Laguntzaileak

fati

Zestoa

Forjas Izaeta

Logure

Talleres Lizarralde S.L.

Koiote

Goxuri

sastarrain baserri eskola

kutxabank hemen eta orain